

## Aiherra

Herria du 10 novembre 2012

**Gau Beilako, bixkotxen beharra**  
Ohidurari jarraikiz, Belzuntze elkar-koek dei berezi bat egiten dute herri-ritar bixkotx egileeri, « Gau Beilako arratseko 7tan ekartzea zuen emaitza Denen Etxera galduta zautzue. Ondorioz zueri esker ikusle guziak ongi errezebituak izanen dira ». Aitzinetik milesker !! eta ONGI ETORRI DENERI !

### 6 ofizialeen sustengua

6 herritar komertsant edo ofizialeek sustengua ekartzan diote aurten ere Gau Beilari. Hauiek dira : Jacky DUHALDE ahotza, Attatea ostatua, BISCAY Garraioak, OLAIZOLA J-Pierre iturgina, BIDENABAR Garraioak eta IPARTRANS Garraioak. Goresmenak izanen dira.

### Ostegunean, 20.gau beila : berezia izan behar luke !

20.gau beilaren karietara, beste urtetan bezala, Aiherrako Denen Etxea kafe antzoki gisa apaindua izanen da, han hemenka mahainen inguruan kokatuko direlarik ikusliar multxoak. Artetik sagar jusa edo arnoa jastatuz, herritarrek eskaini bixkotxak gozatuz, kadera goxo batzuetan jarririk, horra hor gau eder baten iragaiteko parada. Ostegun arrats huntakoa, usaian bezala 9tan tenorez hasiko da. Hogeigarrena izanez jadanik berezia izanen da. Bereziagoa izanen da oraino, Ugutz beskoiztar ixorio kondalariak bere azken agerraldia egiten baitu Aiherrako gau beilan, bihotzean ximiko batekin hain segur. Bihotzean ximiko bat ukanen dute ere antolatzaleek eta ikusleek, 20 urte hauetan, kasik urtero parte hartu baitu Aiherrako gau beiletan. Berezia izanen da aurten 20 gau beila, Ardebeltza hirukotea lehen aldikotz gure herrian ikusiko baitugu. Alta ba, hau Aihertar, Makear eta Itsasuko 3 lagunek dute osatzen,

zoin ederki. Zinez balio du haien entzutera etortzea. Berezia izanen da ere, Tapia bere musika talde osoarekin heldu baitzauku, azken diskatik berexi kantu batzuen emaitzako. Pesta bat omen da berarentzat Aiherrara etortzea. Pesta handia izan behar luke ikusliarentzat ere ! Nolaz ez aipa Urruñatik heldu zaukun Odei Barroso bertulari ezaguna, txapeldu gaia, esperientzia handikoa. Txapelketa segitu dutenek, atsegin izanen dute hunen ikustea. Lagun gisa, Ainhoa Agirreazaldegi Bergarako emazte gazteak errepika egiten dio.

Kantari, musikari, ixorio kondatzaile, eta bertulariekin, horra betiko egitarau orekatu baten mentura. Arats goxo baten pasatzeko segurtamena badugu. Balia gaiten Belzuntze elkar-koek egiten daukuten ongi etorriaz. Eta orroiti, 9etan itanko hasiko zaukula Aiherrako 20.gau beila !

### “Itzalian” etxean, Lili sortu berria

Etxe huntako Virginie Lekunberry eta Frantxoa Sabaloue andere jaunek beren bigarren haur bati ongi etorri egin diote. Lau urte dituen Mateo semearen ondotik, horra orain alabaño bat Lili deitu dutena. Zorionak sortu berriari eta goresmenak ait'ama uroseri.

### Momon LEON-en heriotzea

71 urte baizik ez zituen Momon denek deitzen ginuen Edmond Leon herritar-rrak. Ihiztari ezagunaren orroitzapena uzten du, Felixite bere emaztearekin ihizin ibiltzen baitzen. Herriko kontseiluan egona zen. Barkatzen ez duen eritasun batek ereman du, azken denboretan aski sofriturik.

Momon zenaren ehorketak, Aiherrako elizan, astelehen arratsaldean iragan dira. Gure doluminak Felixite emazteari, Franck semeari eta familiako guzieri.

## Aiherra

Herria du 17 novembre 2011

**Sarrigaineko urrezko ezteiak** - Igandean zortzi Etiennette Paraxu Sarrigaineko serorak ospatu ditu urrezko ezteiak. Bere 50 urteko serora bizia aipatu dauku. Ibili da eskuin eta ezker. Lehen egonaldia Akizen : gosta zitzaion harat joaltea, euskara nehork mintzo ez zuen leku arrotzerat. 36 urtetan Afrikara igorri zutelarik misionest batek erran zion hangoari jartzeko ez zela aski gazte. Baina berehala laketu zen nahiz toki pobrea izan. Honarar itzultzea bai gosta zitzaion !

Boilkostan, jende gehienak ez baitziren katolikoak eta apozak hemen baino xuhurrago oraino, herri gehienetan mezarik ez izanez igandetan, katexitak biltzen zituen bere herritarrek ebanjelioa entzuteko eta otoitz egiteko. Hala izanen dea hemen ere ondoko urtetan ? Orai Tolosako « banlieues » horietan ari da lanean, etorkin edo imigratuen erdian, autoak erreak izatea gertatzen den toki horietan. Autoa nonbait uzten dutelarik serorak, karrika bazterrean kalakan ari diren araba zaharrak begia erre daude, nehork ez dezan seroren autoari kalterik egin. Behar ote da frogarik gehiago ikusteko mahometarrek bere konprenitua dutela serorak ez direla beste nornahi iduriak ? Nahiz ez diren katoliko, arabek estimatzen dituzte. Erran dauku ere bizi uros bat eraman duela eta ageri zen segurik egia zela. Bera ere omore onekoa dela ageri du. Pentsatzen dugu inguruan zituen lau herrietako hamabi serorek gauza berdintsuak erranen zizutela.

**Sortze** - Bidekurutzean, «Aiherrako gainak» auzoan, beren lehen haurñoari ongi etorri egin diote Céline eta Julien CLEMENT andere jaunek. Emile deitu dute beren semea. Zorionak sortu berriari eta goresmenak berrikatan kartiereko edo auzoguneko bestan ezagutu genituen ait'ama uroseri.

**Gasna lehiaketan, 3. saria** - Berriki iragan den gasna lehiaketa batetan, hain zuzen Lurrana laborantza saloian antolatu dutenean, Betisasteko Maite eta Beñat Duhalde jaun andereek irabazi dute 3. Saria, laborantza biologikoa saillean. Baginakien gasna ona egiten zutela. Sari hunek hori frogatzen du. Biba zuek !

**Herriko eskolaren lotoa** - Urte guziz herriko eskolak antolatzen duen lotoa hurbildua zaku. Hau azaroaren 26an iraganen da, arratsko 9etan, Aiherrako denen etxe-

an. Sari ainitz badaude irabazteko, hala nola aste bat bakantza Andaluza aldean, itsas bazterrean, LCD telebixta bat, zere hornituak, etxetresna elektriko eta beste. Ongi etorri deneri !

**Behobia-Donostia lasterketan, 4 aihertar** - Lau aihertarrek parte hartu dute aldi bat gehiago, joan den igandeko Behobia-Donostia lasterketa famatuan, 23 000 lasterkari erdian. Dakigunaz, aski sofritu dute aurten beroaren gatik. Hala ere, orroitzapenez baterik etxera itzuli dira, memento on bat elgarren artean iraganik. Biba zuek !

**Ostiralean herritar foroak** - Bateria Herritar foroak antolatzen ditu heldu den asteburuan eta Hazparne ta Bastidakoa Hazparneko Elgar zentroan egiten da, ostiralean, arratsko 8ak 1/2tan. Instituzioaren inguruan den eztabaidari buruz informazioa emana izanen da, eta lurralde elkargoa zer den, nola antolatua den, esplikatua izanen. Foro horiek deneri idekiak dira, Bateria egiten duen proposamenarekin ados izan ala ez (foroak eztabaida biziartzeko ere egiten dira).

**20. gau beila, kalitate handikoa** - Iragan azaroaren 10-eko 20.Gau Beila orroitzaria geldituko da Belzuntze elkarteko antolatzaleentzat, kalitate handiko artistak ikusi baititugu, eta uste gabekoak ere. 140 bat ikusliarrek preziatu dituzte Odei Barroso eta Ainhoa Agirreazaldegi bertulariak, eta Ugutz Beskoiztar ixorio kondalaria. Hunek azken aldia zuela gau beila huntako taulen gainera igaiten zela, txalok merezi ditu 20 urtez, 18 edo 19 aldiz bere tokia segurtatu baitu. Ardi Beltza taldea edo hirukoteak ikustea eta entzutea merezi du, talendu handi batekin emaiten baitituzte bere idatzi eta musikatu kantuak. Lorea Etcheverria, Maddi Gaztanbide eta Olivier Larrende Makear, Aihertar eta Itsasuarrek dute osatzen. Agian segituko dute ! Nolaz ez aipa orain, Joseba Tapiak azken mementoan egin duen oparia ; bere 5 musikariek lagundurik, etorri da «eta tira eta tunba» azken dizkako kantuen aurkeztera. Gualdi xoragari hunek herritar gehiagoren presentzia mereziko zuen halere. Milesker lagunak, gure herria segurtatu duten gazteria ederra, bai eta laguntza ekarri duten herritar 6 ofizialeak. Helduden urte arte !



## Aiherra

Herria du 24 novembre 2011

### Heriotze

Xaharroteiko Beronika Oxoby, elizako orgina joile ohia, zendu da. 72 urte zituen. Denek Beronika Xaharroteikoa deitzen baginuen, bazuen urte zonbeit Xaharroteitik joana zela. Aspaldi

huntan alargundurik, azken urteak lzturitzeko xahar etxean iragan ditu. Jean Marc semeari, bai eta Luixa serora ahizpári, gure dolumin bizienak. Ehorzketak, asteazkenean iragan dira, Aiherrako elizan.